

## DATUAK ARGITARATZEA

Zerbitzuaren erabiltzaileei dagozkien datu pertsonalen tratamendua honako arau hauen arabera egingen da: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoa.

Datuen Babeserako Espainiar Agentziak (AEPD) lehiaketa askeko prozesuetan (kasu, eskola ikaspostuak edo diru-laguntza publikoak eskatzea) ondoko datu pertsonalen hedapena mugatzeko exijitzen du: izen-deiturak, titulazioa edo hezkuntza maila, osasun datuak, errenta, helbidea, mugikorreko zenbakiak edo azterketen emaitzak, besteak beste.

AEPDk azaltzen du informazio hori “hirugarren batzuek” ikus dezaketela jendaurrekoak diren euskarrietan, kasu, iragarki oholetan, Interneten edo Aldizkari Ofizialetan. Gomendatzen du osasuneko, errentako eta bestelako datuak dituzten informazio horniketak (baita informazio horretatik halako daturik ondoriozta daitekeenean) soilik egin daitezela aldez aurretik lehiaketa prozesuan parte hartzen duten interesdunek hala eskatu ondoren, gerta daitezkeen balizko desadostasunak edo egiaztapenak direla eta.

Jarduera honek gardentasun eta norgehiagoka printzipioak bermatzeko modua mugatzen badu ere, kontrakoak ekarriko luke prozesuan zerikusirik ez duten hirugarren batzuen jakinean jartzea informazio bat, ez dutena zertan ezagutu behar.

Egokiago irizten dio, aukera berdintasunean lehiatzeko eskubidea bermatze aldera, balorazioaren emaitza orokorra iragarki oholean argitaratzeari, eta osasuneko, errentako eta bestelako datuak dituzten informazio horniketak (baita informazio horretatik halako daturik ondoriozta daitekeenean) soilik egin daitezela aldez aurretik lehiaketa prozesuan parte hartzen duten interesdunek hala eskatu ondoren, gerta daitezkeen balizko desadostasunak edo egiaztapenak direla eta.